

“ ”

Galdera da lan batek noiz balio digun, ez geuk distira egiteko, baizik eta kolektibo gisa

Amaiur Epher

Diziplina askotan ibilia da Amaiur Epher (Izpurua, 1994). Aktore lanak egiten ezagutu nuen orain urte batzuk. Diabolo Kiwi edo Frigo taldeekin erritmo dantzagarriak joz ikusi eta entzun du, ziur, batek baino gehiagok. Eta idazlea ere bada. Bigarren liburua argitaratu berri du: *Haize beltza* (Txalaparta, 2025), no-

bela beltz bat idazteko lanetan ari den idazlea protagonista duen eleberria. Baionan jarri dugu hitzordua. Bazkaldu bitartean egin ditugu gaurkotze eta beroketa lanak; eta kafearen ostean, Aturri ibaiaren ertzeko eguzki epeletan hasi dugu bigarren solasaldia, grabagailuak jasoko duena.

 LANDER ARRETXE BEREZIARTUA  DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA

***Haize beltza* duzu bigarren literatur lan argitaratua. Noiz hasi zen istorio hau zure baitan garatzen?**

2022an, duela hiru urte. Diabolo Kiwi-ekin diskoa atera berri genuen, baina gogoan nuen denbora bat dedikatzea idazketari. Eta hor atera zitzaidan liburuan agertzen den ipuin labur bat: *Urak handi dire*. Eta pixka bat berantago irakurri nuen Paul Austerren liburu bat, ez dena euskaraz itzulia baina *Orukuluaren gaua* gisa itzul daitekeena, eta bizi nuen momentuarekin aski asmatzen zuela iruditu zitzaidan.

Udan, bakantzetara joan nintzenean, hasi nintzen liburu hartako zati batzuk itzultzen; pertsonaia sistema horretatik abiatu eta, New Yorken beharreen, Baionara edo beste leku batera ekartzeko ahalegindu nintzen. Hori izan zen abiapuntua.

Tomas da liburuko protagonista, eta bera ere zeure ariketa bertsua ari da egiten: literatura beltza ekarri nahi du Euskal Herrira.

Tomasek hori du bere kezka nagusia: literatur beka bat irabazi du, eta mo-

mentu batez behar du zerbait ekoitzi. Eta hara, bai, paralelismoa egin daiteke. Tomasek asmatu nahi du nola ekarri amerikar literatura beltza Europara edo Euskal Herrira. Eta nik egin dudana ari-keta da Austerren lan edo tankera hori Baionara nola ekarri.

***Haize beltza* ez da, ordea, literatura beltzaz soilik ari.**

Literatura beltzaren inguruko liburu bat da, literatura beltza izan gabe. Banekien literaturaz aritu nahi nuela liburu honetan, eta sartuko nintzela

hizkuntzaren terrenora. Liburuaren kezka nagusia izan da ea, gure hizkuntzak duen egoera honetan, literaturak zer aporta diezaiokeen euskal hiztunari. Eta zer garrantzia duen literaturak gizartean. Liburuan bada genealogia baten bilaketa bat: nola emango dion hatsa ene hizkerari Jean Etxepare batek, Jon Mirande, Itxaro Borda edo Antton Luku batek... Literatura beltza bilakatzen da estakurua hats horren bilaketa horretan. Ez zait segidan inposatu gai hau, baina ohartu naiz ezin bestekoa zitzaidala, eta kezka handia nuela horretan. Ni pertsonalki animatzen nauen borroka nagusia hizkuntzarena da.

Idazle bati buruz idazten duen idazle bat da protagonista, Tomas, eta halaxe dio, sortu duen pertsonaiak ari dela: “Amilotx nihaurrek asmatu nuen, eta Amilotx ni nintzen”.

Kasu honetan, nihaurre ari banaiz idazten duen idazle bati buruz idazten, paralelismoa berehala egiten da, baina ez da ene abiapuntu izan. Bistan denez, Tomasek izango ditu Amaiurren gogoeta batzuk eta gauza anitz parekatzen eta atxemaiten ahal dira, baina ez zen ene abiapuntua. Erabili ditut nire ezagutzak eta bizipenak pertsonaia hauek elikatze-ko, eta ez alderantziz. Jolasa ere bada, dudarik gabe. Ni Ephor naiz, eta txori izena edo ezizena du sortu dudana per-

tsonaiak, baita Tomasek sortzen duen pertsonaiak ere.

Tomasek ez du etengabe liburu bera idatzi nahi. Kezka hori presente izan duzu zuk ere?

Bai, total. Hori helburu bat izan da eta testua berrirakurtzerakoan hor izan dut kezka. Lehenago irakurtzeko aukera izan dutenei ere galdetu diet. Baina uste dut anitz idazleri gertatzen zaiena dela: gauza batzuk berriz etortzen dira edozein abiapuntu izanda ere, eta nire kasuan ere horrela izan da.

Asko aldatu da zure buruari eskatzen diozuna Profeten iruzurra idatzi zenuenetik hona?

Profeten iruzurra banekien ez zela boro-bila, eta ez zen anbizio horrekin sortua izan. Oraingoan nahi nuen zer bait forma aldetik borobilagoa, istorio bat zuena. Lehen liburuan pertsonaia zen oso zentrala, eta haren gorabeherak jasotzen zituen, baina norabidea oso lausoa zen. Orain ere saiatu naiz irakurlea despistatzen, baina jakinda nora eraman nahi nuen. Bada trama bat, bide bat...

Erreferentziaz jositako liburua da, eta ez dira literatur erreferentziak soilik: abestiak, margolanak...

Lehen liburuan ere kultur erreferentzia asko agertzen ziren, eta oraingoan ere bai. Baina entseatu naiz finikiago agerrarazten. Batzuk ez dira zehazki aipatzen, badira begi-klixka gehiago: musikalak, kantu batetik ebatsi esaldiak, azpimarratu gabeko erreferentziak.... Eta gero bada gogoeta batzuk liburu jakin batzuek dituztela piztu, eta banuen zorra kitatzeko behar bat ere. Idazketari buruzko gogoeta horretan, beste idazle batzuek ere elikatzen baitute gogoeta hori, eta beharrezkoa zen, zintzotasun intelektualez, aipamena egitea.

Itziar Ugarteren Gu gabe ere liburua asko aipatzen da behin baino gehiagotan. Eta tartean, poema baten zati batzuk: noraino ote den dena ke, idazteaz hitz egiten dugunean, idatzi beharrean.

Idazten ari nintzelarik, esaldi hori ezarria nuen bulegoan, kolatua, autodiziplinatzeke mantra gisa. Etkez aldatu dut, baina papera, horitua, hiru urtez izan da ene paretan lotua. Egia da hau ez dela ene ofizioa, eta beraz, denbora libre behar dela kudeatu. Nik idazteko behar dut bi oren gutxienez, eta egun osoa bada, hobe. Liburuak badu horre-





taz, literaturaz mintzo da eta mintzo da, eta zeinetan den ke, zeinetan den ilusio bat... joko hori bada. Itziar Ugarte ez dut pertsonalki ezagutzen baina hau eskertu behar diot noizbait.

Idazlearen galdera handietako bat zera da: zergatik idatzi? Nori axola zaio nik kontatu nahi dudana hori?

Pentsatzen dut denek galdera hau dutela, baina uste dut galdera hau dela liburuaren galdera zentraletako bat. Ni ez naiz sekula New Yorkera joan. Nola lortzen du Paul Austerrek, adibidez, bere istorio burges horrekin identifika nadin, eta orriak itzul ditzadan. Eta nola egin dezaket nik gauza bera gurera ekarrita? Nola bilakarazi sexy idazten ari den idazle bati buruzko istorio bat? Tomas idazten ere agertu behar zen batzuetan, eta hor sartu ditut beste ipuin edo testu zati batzuk. Baina gogoan izan dut galdera: zer joko egin behar dut irakurleak haria ez dezan gal, idazlearen testuak irakurri eta narrazio orokorraren tartean nabigatzen dugularik?

Tonu ironiko bat antzematen da nobela osoan zehar. Tomasen ahotsetik bertatik hasita...

Lehen liburuan biziki argi zen alde ironiko hori, eta honetan uste nuen ez zela hainbeste ironiarik... Baina ohartu naiz baietz, hastetik buru badu. Tomas bere antipatia horrek du humano egiten, bere akats horiek dute gertukoago edo sinesgarriago egiten. Ironiak arinago egiten du egoera, eta gauzak lasaitasunarekin hartzen lagun dezake. Min horiek ezitzen ahal ditu, eta gure gehiegizko negarrak erlatibizatzen laguntzen du. Liburu

“ ”

Euskalkiak baztertu ditugu, eta orain, sartuko ditugu erdarakadak, ustezko batasun baten izenean

honetan ironiarik nabaritzen ez duenak ez du ironia ezagutzen. Uste dut ironiarrena-eta lotzen ahal dela nire genealogia horri ere. Ama halakoa dut, osaba ere bai. Arraileria deitzen diogu guk: trufa bat baina ez baitezpada gaiztoa. Humanizatzen duen trufa bat...

Tomasek badu mentore bat, idazle lanetan itsasargi zaiona. Zuk izan duzu halakorik?

Idazketara etorri aitzin, irakurketara etorri nintzen, batez ere, antzerkiaren bitartez. Eta hori Antton Lukuren bitartez izan zen. Harreman oso estua dut harekin, eta bai, lagundu izan nau idazle, irakurle, irakasle moduan. Zor ainitz badut kitatzeko, eta zordun segitzen dut, bistan dena.

“Pertsonaiak salbatu behar dituk”, esaten dio Trastuk Tomasi. Zuk salbatzeko tentazioa izan duzu?

Hori Antton Lukuri zor diot, egia esan. Antzerkian pertsonaiak salbatu behar direla erraten zuen, eta nik ulertzen dut bere humanitatea mantendu behar dutela, lerratu gabe: hauek gaiztoak, hauek

zintzoak. Pertsonaiak salbatzea ez da haien bizia salbatzea, baizik eta beren humanitatea atxikitzea. Uste dut ene liburuan nahiko duinki bukatzen dutela pertsonaia guztiek, humanitatea galdu gabe.

Bazkaltzen ari ginela esan didazu lehen: “Liburu hau batuan dago idatzia, baina ez estandarrean”.

Koldo Zuazok dioen moduan, batuak lexikoan dena onartzen du eta sintaxian ere forma franko. Baina batuan bada nagusitzen den hizkera edo idazkera bat, eta horri deitzen diogu estandarra. Beraz, enea batuan idatzia da, baina ez estandar horretan.

Gogoan nuen editore batekin elkarlan luze batean sartzea. Beharbada idealizatzen nuen, edo ez nekien sobera ondo zer zen, baina erronka bat bezala banuen: ikastea joan-etorri horiek nola kudeatzen diren. Gure kasuan, Garazi Arrula editorea eta bion artean aski fite heldu zen hizkuntzaren aferra. Aski fite inposatu da gai bezala, eta horretan ere interesgarria izan da elkarlana. Agertzen dira ipuin batzuk ekialdeko euskaran edo Garaziko euskaran, eta erabaki genuen elkarriketa batzuetan ere euskalkia markatuagoa izatea, baina narratzailearen ahots nagusia batuan gelditzea, baina beti ere lexikoan eta sintaxian ere ekialdeko ukitu batekin.

Badu nolabaiteko aldarrikapen bat hautu horrek atzean? Edo hautu literario bat gehiago da?

Esango nuke idaztean naturalki hala ateratzen zaidala. Estandarrean idazteko nire burua bortxatu beharko nuke, eta ez nuke testuan nire burua ezagutuko. Bestalde, uste dut, ikusiz gure egoera



soziolinguistikoa, zein diglosia egoeran bizi garen, bai iparraldean baina baita orokorki ere, muga hori edo distantzia hori areagotzen doala... Estandarrean gaztelaniazko kalkoak badira, eta gero eta zailagoa egiten zaigu guri hori irakurtzea. Bi erderen influentziak distantzia areagotzen du, dudarik gabe. Euskalkiak baztertu ditugu, eta orain, sartuko ditugu erdarakadak, ustezko batasun baten ize-nean. Baina ez da batasunik erdarakadak integratuz. Batasun bat izango da alde bietan, baina bi batasun bereizi dira. Eta beraz, iruditzen zait beharrezkoa dela, bereziki hizkuntza hau bizi dugunok, ahal bezain gureak eta berezkoak ditugun baliabide gehienak baliatzea, gure hizkuntza ez pobretzeko, eta ez dezagun kalkora pasatzeko beharrik izan.

Elkarlan horretan, editorearen eta bien artean, ezusteko zerbaitekin egin duzue topo?

Batzuetan uste dugu hizkuntzari lotuak direla ulermen arazoak, lexikoari, sintaxiari... Baina uste dut ezetz. Erreferentzia kulturalak ezberdinak ditugu, eta horrek ere urruntzen gaitu. Hegoaldeko idazle batek pintxopote bateko giro bat kontatzen badu, ez du pentsatuko pintxopotea zer den esplikatu behar duenik. Hegoaldean egiten dena, gai gara gu ere ongi ulertzeko, baina kontrakoak nau ni beldurtzen. Halako ez ulertzeak ere izan zitezkeela ikusi dut prozesuan. Banekien mundu ezberdinetan bizi girela, baina horrek konfirmatu dit. Ez da arazo bat gure munduak ezberdinak izatea, arazoa da ezezagutza. Baina aski interesgarria izan da prozesua.

“ ”

Oso gizarte atomizatua gara, eta gure sorkuntzak ere atomoak baldin badira, atxeman beharko ditugu atomo horiek lotzen dituzten zubiak ere

Aurrekoa Maiatz argitaletxearekin atera zenuen, eta oraingoa Txalapartarekin. Badago hor nolabaiteko anbizio bat, beste irakurle batzuegana heltzekoa?

Argitaletxe nazionala da, eta horrek heldadura zabalagoa ahalbidetzen du, bai. Bulegoa dute Iruñean, eta joan-etorriak Iruñean edo Garazin egin ditugu. Iruñean egiteak ere garrantzia du niretzat, ni lotua naiz afektiboki Iruñeari ere. Gure hiriburua da. Txikitandik, enetzat eta gurasoentzat, gure hiria ez da Baiona izan, Iruñea baizik. Hori ere bazen giblean.

Liburua amaituta: plaza, aurkezpenak, hedabideak. Eta hor, nolabaiteko isiltasuna edo hutsunea topatu duzula aipatu didazu lehen.

Bai, hori esan dut baina justu elkarrizketa hau hasi aurretik jaso dut beste dei bat elkarrizketa bat egiteko (barrez). Egia da liburu anitz publikatzen dela eta uste dugula heldu den hilabeteko libu-

ruek ezagutuko dutela aurreko guztia. Baina, azkenean, denbora pixka bat ere utzi behar zaio. Liburu bat ez da disko bat bezala berrogeita bost minutuan entzuten. Nik espero dut Euskal Herri osoan zehar aritzea hau aurkezten, leku ezberdinetako irakurketa klubetan eta abar. Eta ikustea editoreak eta biok izan ditugun kezka horietan, zeinetan asmatu dugun eta zeinetan ez, noiz sentitu den idenfitikatua irakurlea...

Influencerren garaiotan, badirudi inoiz baino gehiago sortzaile edo protagonista izan nahi dugula orain, eta gero eta gutxiago hartzaile. Gehiegi begiratzen diogu nork bere ziliborrari?

Nik epailearen begirada kanpo uzten dut. Badakit denok sortzaile potentzialak garela, are sortzaile, sareko edukien-gatik. Baina idazketak badu zerbait oso anakronikotik: eskatzen du kadera batean jartzea, orenak hor pasatzea, eta hori aski anakronikoa da. Andy Warhol-ek zioen denok izango dugula gure bost minutuko famaldia, eta akaso bai, baina niri gehiago interesatzen zait epe luzean iraungo duen zerbait sortzea. Gizarte oso atomizatua gara, eta gure sorkuntzak ere atomoak baldin badira, momentu batez atxeman beharko ditugu atomo horiek lotzen dituzten zubiak ere. Nork bere bost minutuak baldin baditu, kolektiboki zer ekartzen digu horrek? Ez dut erran nahi nik proposatzen dudana lanak beste lan batek baino zilegitasun handiagoa duenik. Baina galdera da noiz lan batek balio digun, ez geuk distira egiteko, baizik eta kolektibo gisa. ●